

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2401

AGINDUA, 2021eko apirilaren 13koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita 271/2012 Dekretuan aurreikusitako dirulaguntzen 2021erako deialdia (271/2012 Dekretua, abenduaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzekoa).

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legeak honako hau aitortzen du: «Gizarte-arloko ekimeneko eta esku-hartzeko erakundeak euskal gizartearen funtsezko aktibo bat dira, eta haien ekarpena ezinbestekoa da gizarte zuzen eta solidario, berdintasunezko eta kohesionatu, demokratiko eta parte-hartzailea eraikitzeko, bai eta gizarte-beharrei modu egokiagoan (integrala, hurbilekoa, pertsonalizatua, parte-hartzailea) erantzuteko ere, sektoreen arteko lankidetzaren bidez eta pertsonen beraien, familien, kolektiboen edo komunitate hartzaileen parte-hartzearekin».

Agindu honen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan bilduta dauden aurreikuspenak bete eta garatuko dira 2021ean. Orokorrean hartuta, agindu honek ez dira errepikatuko dekretu horren edukiak, baina dirulaguntzen deialdi horretara aurkeztu nahi duten erakundeek nahitaez kontsultatu beharko dituzte eduki horiek.

Dekretu horren arabera, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen babesean, esku-hartze sozialaren jarduerak pertsona, familia, talde eta komunitate guztien autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa babesteko eta sustatzeko jarduerak dira.

Dekretu horrek, halaber, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila behartzen du sustatze-lan horretan arreta bereziz aintzat hartzera bere erantzukizun espezifikuari dagozkion ikuspegiak eta zeharkako politikak, hala nola honako hauekin zerikusia dutenak: gizarteratzea, familia, haur eta nerabeak, immigrazioa, dibertsitate eta askatasun afektibo eta sexuala, desgaitasuna eta mendekotasuna, adinekoak eta, bereziki, genero-berdintasuna.

Testuinguru horretan eta «XII. Legegintzaldiko 2020-2024» jarduera ardatz orokorren barruan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-politiken zeharkakotasuna indartzea dago, bai eta balioen aldaketa baterako hezkuntzatik bultzatzeko beharra ere.

Agindu hau 2021. urterako dirulaguntzen plan estrategikoan jasota dago. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak onartu zuen plan hori 2020ko abenduaren 23ko Aginduaren bidez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta, zehazki, lege horren 8.1 artikulua betetzeko.

https://www.euskadi.eus/contenidos/orden/planestrategico_subvenciones21/es_def/adjuntos/Plan-Estrat-Subv-2021_cast.pdf

Dekretu horrek Eusko Jaurlaritzari laguntzen dio irabazi-asmorik gabeko erakundeek gauzatzen dituzten esku-hartze sozialeko jarduerak sustatzen, bereziki lurraldez gaindiko eremukoak direnak, hau da, Euskal Autonomia Erkidego osoan gauzatzen direnak.

Dekretu horretan aurreikusitako dirulaguntza-lerroen artean, honako hauek garatzen dira ebazpen honetan:

- 1.– Esku-hartze sozialeko jarduerak, pertsona, familia, talde eta komunitateei zuzenduak.
- 2.– Esku-hartze sozialean ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzeko jarduerak.
- 3.– Esku-hartze sozialari buruzko jakintza kudeatzeko jarduerak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.2.a) artikuluan arautzen duena betetzeko, erakunde interesdunek telematikoki egin behar dituzte laguntza-programa honetarako izapide guztiak.

Hori guztia dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN KOMUNAK

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da esku-hartze sozialaren eremuan jarduerak gauzatzeko dirulaguntzetarako 2021eko deialdia egitea. Jarduera horiek pertsonen, familien eta taldeen autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa babestera eta sustatzera bideratuta daude, bereziki honako gai hauetan biltzen badira edo haiei buruzkoak badira:

- a) gizarte-zerbitzuak.
- b) gizarteratzea.
- c) familiei laguntza, sustapena eta babesa ematea.
- d) haurrak eta nerabeak zaintzea eta babestea.
- e) etorkinen gizarteratzea eta, orokorrean, kulturartekotasuna, alde batera utzita gai juridikoetan laguntza ematea.
- f) adinekoak zaintzea eta babestea.
- g) mendekotasun-egoeran, eta, orokorrean, desgaitasun-egoeran dauden pertsonak zaintzea eta babestea.
- h) askatasun eta dibertsitate afektibo-sexuala.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuaren 1.4 artikuluan ezarritako ondorioetarako, laguntzen xede diren jarduerak egokitu beharko dute esku-hartze sozialaren esparruarekin zerikusia duten arauetan eta plangintza estrategikoan jasotako printzipio eta jarraibideetara, eta, batez ere, honako hauetan jasotzen direnetara:

- a) 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- b) 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.

- c) 13/2008 legea, abenduaren 12koa, Familiei laguntzekoa.
- d) 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa.
- e) 17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, Boluntariorazari buruzkoa.

3.– Kanpoan geratuko dira honako helburu hauek dituzten jarduerak:

a) Emakumeen aurkako indarkeriari lotutako sentsibilizazio- eta prebentzio-arloko jarduerak, badaudelako emakumeentzako laguntza-deialdi bereziak. Finantzaragarrak izango dira, ordea, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimekiko esku-hartze soziala xede nagusia duten jarduerak.

b) Erakunde eskatzailea hobetzea, soilik edo nagusiki erakunde eskatzaileari zuzendutako jardueren bitartez, hala nola bere langileen prestakuntzaren bitartez, edo erakundeen kudeaketari eta ildo estrategikoei buruzko hausnarketa-prozesuen bitartez.

4.– Laguntza hauen organo kudeatzailea.

Gizarte Zerbitzuen zuzendariari dagokio hiru dirulaguntza-lerroetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko zereginak egitea. Abenduaren 29ko 271/2012 Dekretuaren 13. artikuluan jasotako balioespen-batzordeak egingo du dirulaguntzak onartzeko edo ukatzeko proposamena (dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dira).

5.– Jarduerak gauzatzeko epea 2021eko ekitaldia da.

2. artikulua.– Laguntzak izapidetzea.

1.– Erakunde interesdunek bitarteko elektronikoz eskatu, kontsultatu eta egin behar dituzte prozedura honetako izapide guztiak, xedapen hauetan araututakoarekin bat etorritz: 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoa buruzkoa; 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariarena, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– onartzen duena, eta 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

2.– Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren web-orrian daude eskuragarri izapideak bitarteko elektronikoz egiteko zehaztapenak:

– Esku-hartze sozialeko jarduerak jarduerak, pertsona, familia, talde eta komunitateei zuzenduak:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/0083311

– Esku-hartze sozialean ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzeko jarduerak:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/0083311

– Esku-hartze sozialari buruzko jakintza kudeatzeko jarduerak:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/0083207

3.– Espedientean sartzeko eta eskabidearen ondorengo izapideak egiteko, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>) «Nire karpeta» atala baliatu beharko da.

4.– Eskabidea edo izapidea banakako ziurtagiri elektronikoko bidez egiten bada, erakundearen legezko ordezkariarena izan zein ez, nahitaezkoa da pertsona hori Ordezkarien Erregistro Elektronikoa izena emanda egotea erakundearen ordezkari moduan: <https://euskadi.eus/ordezkariek>

5.– Erakunde interesdunentzako jakinarazpenak bide elektronikoz egingo dira, eta Eusko Jaur-laritzaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta» atalean kontsultatu beharko dira.

6.– Haren edukia eskuratzen den unean bertan joko da egindakotzat jakinarazpena. Jakinarazpena eskuragarri jarri eta hamar egun natural igarotzen badira haren edukia eskuratu gabe, hura baztertutzat joko da, eta izapidea egindakotzat, prozedurari jarraituz.

7.– Hori hala izanik ere, organo kudeatzaileak beste aukera bat ere badu: interesdunei jakinarazpenen abisuak bidaltzea, SMSak edo mezu elektronikoak igorri, eskabideetan jarri zituzten telefono mugikorretara eta helbide elektronikoetara. Abisu horiek inoiz ere ez dira jakinarazpentzat hartuko.

3. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta era, eta aurkeztu beharreko egiaztagiriak eta dokumentazioa.

1.– Hilabetekoa izango da eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2.– Eskabidea helbide hauetan egin beharko da, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren web-orrian:

– Esku-hartze sozialeko jarduerak, pertsona, familia, talde eta komunitateei zuzenduak.

www.euskadi.eus/zerbitzuak/0083311

– Esku-hartze sozialean ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzeko jarduerak:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/0083311

– Esku-hartze sozialari buruzko jakintza kudeatzeko jarduerak:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/0083207

3.– Erakunde eskatzaileek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute laguntza jasotzeko eskabidea, bai eta eskabidearekin batera aurkeztu duten dokumentazioa ere. Orobat, laguntza-eskabidea aurkeztu izanaren ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1 artikulua ezartzen duenari jarraituz.

4.– Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztearekin batera, eskatzaileak baimena emango dio Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari, zuzenean eskuratzeko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela ziurtatzen duten agiriak, ziurtagiri telematikoen bitartez. Eskatzaileak, kasu horretan, ez du agiriok aurkeztu beharrik izango. Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, halakorik egiten badu, dagozkion agiriak aurkeztu beharko ditu.

5.– Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.6 artikulua betez, alderdi hauek egiaztatuko dira, eskabidean txertatutako erantzukizunpeko adierazpen baten bidez:

a) Helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskatu, eta, hala badagokio, jaso direla adierazi beharko da, zeinahi dela ere haiek ematen dituen administrazioa edo erakunde publikoa zein pribatua.

b) Erakunde eskatzailea ez dago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek izaera bereko laguntzen esparruan hasi den itzulketaren edo zehapen-prozedura batean.

Baietz esan badu, prozedurak zehaztu beharko ditu.

c) Erakunde eskatzailea ez dago administrazio- edo zigor-arloan zigortuta dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin, edo ez dago horretarako ezgaitzen duen inolako legezko debekuren eraginpean.

d) Erakunde eskatzaileak betetzen du Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikuluko 5. apartatuan xedatua, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen bidez ezarrita baitago. Hau da, adingabeekin harremana izan ohi duten langile guztiek, bai kontratatuek bai boluntarioek, sexu-delitugileen erregistro orokorraren ziurtagiri negatiboa izan behar dute.

e) Dirulaguntzen onuradun izateko, ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 3. artikuluko egoeren eraginpean.

6.– Erakunde eskatzaileak adierazi du, orobat, egia direla eskabidean eta harekin batera aurkeztutako dokumentazioan bildutako datuak, eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

4. artikulua.– Dokumentazioa.

Agiri hauek erantsi behar zaizkio dirulaguntza-eskabideari:

a) Erakundearen balantzea eta emaitzen kontua 2020an.

b) Erakunde eskatzailea Gizarte Segurantzaren sisteman inskribatuta ez badago, erantzukizunpeko adierazpen bat, Gizarte Segurantzarekiko edo Gizarte Segurantzaren ordezkio sistemekiko betebeharrak egunean dituela adierazten duena.

5. artikulua.– Eskabideak dirulaguntza-lerro batetik bestera aldatzea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuaren garapenean deitutako laguntzen esparruan, behar diren koordinazio-mekanismoak ezarriko dira, eskabideak oker aurkeztu diren kasuetarako, eskabidearen xedea bat ez etortzeagatik aurkeztu den dirulaguntza-lerroaren xedearekin.

Ildo horretatik, laguntza hauen organo kudeatzaileak uste badu eskabideen xedea ez datorrela bat aurkeztu diren lerroarekin baina bat etor daitekeela agindu honetan jaso den eta administrazio-ebazpenaren aurreko fasean dagoen beste laguntza-lerro batekin, erabaki dezake eskabidea lekualdatzea haren xedera gehiago egokitzen den laguntza-lerro batera.

2.– Erakunde eskatzaileari jakinaraziko zaio aurreko paragrafoan aipatutako lerro-aldaketaren berri, hain zuzen ere, hamar egun naturaleko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, aukera izan dezan egokitzen dituen alegazioak egiteko. Epe hori igaro bada, eta erakunde eskatzaileak aurka egin ez badu, lerro-aldaketa onartutzat hartuko da.

6. artikulua.– Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira zalantzarik gabe bat datozenak diruz laguntzen den jardueraren izaerarekin, hertsiki beharrezkoak direnak, eta deialdian ezarritako epean egiten direnak.

Agindu honen ondorioetarako, egindako gastutzat joko da 8.1 artikuluan adierazten den justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindu dena.

2.– Honako gastu hauek lagundu daitezke diruz:

a) Zuzenekoak: halakotzat hartuko dira diruz laguntzen den jardueraren edo programaren garapenetik berriaz eratorzen direnak.

b) Zeharkakoak: kostu aldakorrek izan daitezke, onuradunak egindako zenbait jarduerari egozten zaizkienak, edo, bestela, egiturazkoak, diruz laguntzen den jarduerari zuzenean egotzi ezin zaizkionak baina beharrezkoak direnak hura gauzatzeko.

Aurrekoa oinarri hartuta, honako hauek hartuko dira zeharkako kostutzat:

– Proiektuari zeharka lotutako langileen gastuak: administrariak.
– Zerbitzu profesionalen kostuak, proiektua egiteak sortutakoak: lan-, zerga- eta administrazio-arloko aholkularitza edo kudeaketa.

– Funtzionamendu- eta egitura-gastuak: horniduretarako egoitzaren bulegoa alokatzea.

– Material administratiboa.

– Finantza-zerbitzuei egindako ordainketetatik eratorritako gastuak.

3.– Honako gastu hauek ez dira diruz lagunduko:

– Protokolo-gastuak, hala nola otorduak, harrerak, opariak, loreak, ikuskizunetarako sarrerak edo antzekoak.

– Festetako, ekitaldietako eta era askotako aurkezpenetako janari- eta edari-gastuak, bai eta bazkide, langile eta/edo boluntarioentzat prestatutako edozein ospakizun edo otordu ere.

– Langileen eta esku-hartzearen onuradunen aisialdi-jardueren gastuak, non eta jarduera horietan baliabide komunitarioak erabiltzen ez diren.

– Baldin eta erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan artikulua honetan diruz lagun ezin daitezkeen gastutzak jotzen badira, edo gastu horiek ezarritako muga gainditzen badute, balorazio-batzordeak gastu horiek ezabatzeko edo arazteko eskatuko du, dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko oinarri gisa erabiliko den gehieneko dirulaguntza zehazteko.

4.– Diruz laguntzeko moduko gastuak eskuratzeko kostua ezin izango da inola ere izan merkaturako balioa baino handiagoa.

5.– Lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoak gainditzen baditu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak, erakunde onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, aldezturik, salbu eta, ezaugarri bereziak izateagatik, merkaturak ez badago halako zerbitzurik egiten, eskaintzen edo ematen duen nahikoa erakunderik, edo salbu eta gastua dirulaguntza jaso aurretik egin bada.

Frogagirian edo, hala badagokio, dirulaguntza-eskabidean aurkeztu behar dira eskaintzak, eta, haien artetik aukeraketa egiteko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira. Aukeraketa berariaz justifikatuko da txosten baten bidez, baldin eta proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez bada.

6.– Erakunde onuradunak jarduera azpikontratatu ahal izango du, osorik edo partez, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 50eraino. Halaber, azpikontratazioak dirulaguntzaren % 20 gainditzen bada, eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, dirulaguntzaren erakunde emaileak alde aurretik baimendu beharko du azpikontratazioa, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

7.– Aurreko apartatueta aurreikusten ez den guztirako, artikulua hauetan xedatutakoa bete beharko da: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. eta 31. artikuluetan eta lege horren erregelamenduaren 83. artikuluan (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori).

7. artikulua.– Dirulaguntzaren ordainketa.

1.– Bi ordainketatan zatituta ordainduko da emandako dirulaguntza. Lehen zatia, aurretiaz ordainduko da, eta emandako dirulaguntzaren % 70ekoa izango da; abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuaren 12.a) artikuluan adierazitako epea amaitzen denean ordainduko da, baldin eta laguntzari uko egin ez bazaio. Bigarren zatia, berriz, 2022an ordainduko da, diruz lagundutako jarduera bukatutakoan. Zehazki, laguntzaren likidaziotik ateratzen den zenbatekoa ordainduko da, betiere hurrengo artikuluan eskatutako agiriak aurkeztu ostean.

2.– Ez da dirulaguntzaren ordainketarik egingo, baldin eta onuradunak egunean ez baditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta, orobat, itzulketa-ebazpen bat dela medio, zorduna bada.

3.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, erakunde eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta behar du.

Erakundea ez badago erregistratuta, edo Ogasun eta Ekonomia Sailaren Hirugarrenen Erregistro banku-datuak aldatu nahi baditu, inprimakia bete beharko du hemen adierazitako ereduari jarraituz: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenarenalta>

8. artikulua.– Justifikazioak aurkezteko epea eta modua.

1.– Justifikazioak aurkezteko epea 2022ko otsailaren 28an amaituko da.

2.– Dirulaguntzarako aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu beharko da, eta ez soilik Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak emandako zenbatekoa.

3.– Erakunde onuradunek agindu honetako II-A eranskina (Jarduerari buruzko memoria) eta II-B eranskina (Jarduerari buruzko memoria ekonomikoa) aurkeztu beharko dituzte, behar bezala eta osorik beteta. Inprimaki horiek eskuragarri daude Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren web-orrian:

– Esku-hartze sozialeko jarduerak, pertsona, familia, talde eta komunitateei zuzenduak:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/0083311

– Esku-hartze sozialean ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzeko jarduerak:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/0083311

– Esku-hartze sozialari buruzko jakintza kudeatzeko jarduerak:

www.euskadi.eus/zerbitzuak/0083207

II-B eranskinean, justifikazio-kontua jasotzen da, hau da, erantzukizunpeko adierazpen bat, proiektua egiteko izandako gastuen zerrenda biltzen duena, gastu horietatik zein finantzatu diren Gizarte Zerbitzuko zuzendaritzak emandako laguntzaren bidez zehaztuta; adierazpen horretan, gainera, izandako gastuak egiaztatzeke dokumentuen zerrenda jasoko da, honako hauek zehaztuta: dokumentu mota, identifikazioa, kontzeptua, igorlea, data, zenbatekoa eta jarduerari egozten zaion zenbatekoa eta ehunekoa.

3.– II-A eranskina, II-B eranskina eta haiekin batera doan dokumentazioa elektronikoki aurkeztu beharko dira, kasuan kasuko espedientean, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/>).

4.– Emandako laguntzaren kontura egindako gastuek diruz lagundu diren jarduerak gauzatzea-ekin lotuta egon behar dute. Gastu horiek justifikatzeko ondoren azalduko ditugun dokumentuak hartuko dira baliozkotzat, eta dokumentu horiek dagokion egunetik aurrera gutxienez bost urtez gorde eta eskura eduki beharko ditu erakundeak. Honako hauek dira aipatutako dokumentuak:

a) Erakunde onuradunaren izenean egindako faktura bidez justifikatutakoak. Faktura orok, baliozkoa izateko, 2021ekoa izan beharko du, eta justifikazioa aurkezteko epea amaitu aurretik ordainduta egon. Epe horretan benetan ordaindutako gastua baino ez da hartuko egindako gastutzat.

PFEZaren atxikipena egiten den fakturetan, kostu osoa lagundu ahal izango da diruz, atxikitako zenbatekoa barne dela.

Arauairekiko salbuespenak –fakturaziorik gabeko eragiketak, hartzailearen identifikazio-datuak fakturan biltzea nahitaezkoa ez izatea, jasanarazitako zerga-kuota eta aplikaturiko zerga-tasa fakturan propio ez jaso behar izatea, fakturak txartel zenbakituen taloitegiekin edo, halakorik ez bada, makina erregistratzaileek emandako txartelekkin ordezkatzea, eta abar– fakturazio-betebeharrak arautzen dituzten Foru Dekretuetan bildutakoak dira, edo, halakorik ezean, azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuan.

b) Ziurtagirien edo banku-zorpetzeagatiko kargu-agirien bidez justifikatutakoak, betiere finantza-erakundeek emanak eta faktura bati dagozkion datuak biltzen badituzte, zenbakia eta seriea izan ezik.

c) Langile-gastuei dagokienez, eredu ofizialaren eta Gizarte Segurantzako kotizazio-aldizkari ofizialen araberrako soldata-ordainagirien bitartez justifikatutako gastuak; beharrezkoa izango da, halaber, erakundearen ordezkariak sinatutako ordu-partreak aurkeztea nomina edo nominaren zati bat proiektuari egozten zaion pertsonen kasuan.

d) Balio erantsiaren gaineko zergatik salbuetsita dauden noizbehinkako lanetan, enpresariak edo profesionalak ez diren pertsona fisikoek egiten dituztenean, gastua justifikatzeko, erakunde onuradunak idazki bat aurkeztuko du, haren ordezkariak sinatuta. Idazki horrek, gutxienez, honako hauek jaso behar ditu: idazkia egiten duenaren eta erakunde hartzailearen izen-abizenak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea; eragiketaren deskribapena eta guztizko zenbatekoa; idazkiaren jaulkipen-data; «jasotze-agiria» eta pertsona hartzailearen sinadura; pertsona fisikoaren

errentaren gaineko zergaren atxikipena, eta balio erantsiaren gaineko zergatik salbuestea ahalbidetzen duen araudiaren artikulua.

e) Langile boluntarioen kasuan, boluntarioen aseguru dirulaguntza jaso dezakeen gastutzat har daiteke, agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzen xede diren eta boluntarioen laguntza duten jardueren esparruan. Finantzatu beharreko boluntarioaren aseguruak bi poliza izan behar ditu nahitaez: bata, istripuena, eta bestea, erantzukizun zibilarena. Azken poliza horretan, aseguraturako kapitala 300.506,05 eurokoa izango da gutxienez, polizari atxikitako boluntario bakoitzarentzat, ezbehar bakoitzeko eta aseguruaren urteko kuota bakoitzeko. Boluntarioen aseguru diruz lagundu ahal izateko, justifikazio-kontuan aseguru-entitateak edo aseguru-hartzaileak emandako ziurtagiria aipatuko da. Kontu horretan, erakundeak bere boluntarioen alde kontratatu dituen aseguru-polizen estaldurei buruzko datuak egiaztatuko dira gutxienez, eta aseguraturako pertsona kopurua eta polizaren guztizko zenbatekoa zehaztuko dira.

f) Banku-dokumentua, non justifikatuko baitira diruz lagundutako jarduera finantzatzeko emandako maileguaren zenbatekoa eta xedea, eta lehen ordainketaren datara arte ordaindutako interesak, betiere laguntza hauek arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuaren 10.2 artikulua ezartzen dituen baldintzak betetzen badira.

5.– Dirulaguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko, laguntza eman ondorengo bost urteetan egiaztatuko dira finantzaturako jardueraren gastuaren egiaztariak, lagin adierazgarri bat oinarri hartuta, eta, gutxienez, diruz lagundutako proiektuen % 10ean. Horretaz gain, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egoki diren gainerako ikuskapen-, jarraipen- eta kontrol-ekintzak egingo dituzte.

Laguntza hauen organo kudeatzaileak egokitzat jotzen dituen frogagiriak egiaztatu ahal izango ditu; bestalde, erakunde onuradunak jatorrizko dokumentu guztiak gorde eta eskura izan behar ditu, bost urteko epean, haien datatik aurrera.

9. artikulua.– Eskabideak balioestea.

1.– 50 puntu edo gehiago lortu dituzten jarduerak bakarrik lagunduko dira diruz.

2.– Laguntzen zenbatekoa abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuaren 14.3 artikuluan xedatutako bi banaketa-faseen bidez zehaztu behar bada, honako formula hau erabiliko da banaketa aldagarria egiteko faseari dagokion zenbatekoa zehazteko:

$$S = \text{CMS} \times (\text{P}-20)/100.$$

Honela azalduta:

S = Fase horretan jarduera bakoitzari dagokion zenbatekoa.

CMS = Diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoa.

P = Balioespen-batzordeak jarduera bakoitzari emandako puntuazioa.

10. artikulua.– Zabalkundea.

Dirulaguntza honen xede diren ekintzen eta jardueren euskarrietan, erakunde onuradunak Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren lankidetzara eta laguntza jasoko du.

Proiektu hau hedatzeko ekintza guztietan, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren logotipoa sartuko da, ikusteko moduan.

Logotipoak eta irudi korporatiboa aplikatu beharreko legeriaren arabera erabili behar dira. Informazioa zehatza hemen: https://www.euskadi.eus/web01-s1ezaleh/es/contenids/informacion/v2_simbol/es-simboide/indez.shtml

Halaber, bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, euskara eta gaztelania, diruz lagundutako programaren edo jardueraren publizitate-elementu gisa egiten diren kartel, testu eta dokumentuetan. Ildo horretan, beharrezkoa ez den inpresiorik ez egitea gomendatzen da, eta, hala badagokio, paper birziklatua erabiltzea, digitalizatutako dokumentuekin lan egitea eta online bidali ahal izatea.

Erakunde onuradunek ekitaldi, prentsaurreko, aurkezpen edo diruz lagundutako proiektuen emaitzak zabaltzeko bestelako komunikazio-moduen berri eman beharko diote organo kudeatzaileari, jakin bezain laster eta saileko ordezkariak dibulgazio-ekintza horietan parte hartzeko aukera izango dute.

II. KAPITULUA

PERTSONEKIN, FAMILIEKIN, TALDEEKIN ETA KOMUNITATEEKIN GAUZATU BEHAR DIREN ESKU-HARTZE SOZIALEKO JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK

11. artikulua.– Xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuaren 4.2 artikulua arabera, dirulaguntza-lerro honetan honako jarduera hauek jaso ahal izango dute finantzaketa: pertsona, familia, talde eta komunitateekin gauzatutako esku-hartze sozialeko jarduerak, hau da, pertsonen autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa sustatu eta babesteko jarduerak, eta, batez ere, esperimentazioa edo berrikuntza dakartenak.

12. artikulua.– Aurrekontu-kreditua eta dirulaguntzen zenbatekoa eta muga.

1.– Ondorio horietarako, dirulaguntza-lerro honetako jarduerak finantzatzeko, 3.743.480 euroko kreditu bat aurreikusita dago Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko Aurrekontu Orokorren lege-proiektuan; zenbateko horretatik, 2.620.436 euro 2021eko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.123.044 euro, berriz, 2022ko konpromiso-kredituari.

2.– Dirulaguntza-lerro honetan, ezin izango da 210.000 eurotik gorako laguntzarik eman, betiere banaka kontuan hartuta.

3.– Ezin izango da emandako laguntzaren % 10 baino gehiago bideratu diruz lagundutako jardueraren zeharkako kostuak ordaintzera. Era berean, ezin izango da emandako laguntzaren zenbatekoaren % 5 baino gehiago bideratu jardueraren garapenean sortutako bidaia- eta dieta-gastuak ordaintzera.

13. artikulua.– Balioespen-irizpideak.

Dirulaguntza-lerro honetan aurkeztutako jarduerak balioesteko, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako irizpide amankomunekiko koherentziari jarraikiz, eta han jasotako gainerako orientazioekin bat etorritik, honako alderdi hauek ebaluatuko dira:

a) Kalitate teknikoa: proposamenaren diseinua eta egokitasuna, bideragarritasuna, ebaluagarritasuna eta izaera berritzailea: 20 puntu, gehienez.

b) Esku-hartze eta/edo garrantzi txikiko esparru batekoa izatea, nola jarduerak erantzuna eman nahi dion egoera, hala jardueraren helburuak, kontuan hartuta zuzeneko edo zeharkako hartzaile edo onuradun den pertsona kopurua: 15 puntu, gehienez.

c) Familia- eta komunitate-ikuspegia aplikatzeko merezimendu bereziak izatea, honako alderdi hauen mesedetan: familia- eta komunitate-harremanak, familia- eta lan-bizitza bateragarri egitea, gurasotasun positiboa, etxeko eta komunitateko zaintza-eredu berriak eta esku-hartzearen hartzaileek parte-hartzea haren diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan: 10 puntu, gehienez.

d) Koordinazioa esku-hartze sozialaren esparruaren eta beste esparru batzuen artean (adibidez, hezkuntza-arloko esku-hartzea, osasun-arlokoa edo enpleguari dagokiona): 5 puntu esparru bakoitzeko, eta, gehienez, 10 puntu.

e) Jardueraren eremua edo eskala lurraldez gaindikoa izatea; halakotzat hartuko da jarduera benetan hainbat lurralde historikotan gauzatzea. Hala ere, lurralde historiko bateko baino gehiagoko erakundeek jardueretan halabeharrez parte hartzeak ez die lurraldez gaindiko izaerarik ematen:

* Bi lurraldetan parte hartzea: 10 puntu.

* Hiru lurraldetan parte hartzea: 15 puntu.

f) Jarduera kokatuta egotea Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzukizun espezifikokoak diren eta esku-hartze sozialaren eremurako egokitzat hartzen diren zeharkako bi eremutan edo gehiagotan (gizarteratzea, familia, immigrazioa, haurrak eta nerabeak, desgaitasuna eta mendekotasuna, adinekoak, dibertsitate eta askatasun afektibo sexuala), eta haietan zentzua izatea: 2 puntu, eremu gehigarri bakoitzeko, eta, gehienez, 10 puntu.

g) Jarduera egitea, hainbat erakunderen edo hainbat erakundek osatzen duten sarearen edo federazioaren laguntzarekin: 5 puntu, gehienez.

h) Erakundeak onura publikoaren deklarazioa izatea: 2 puntu; eta interes sozialaren deklarazioa izatea: 3 puntu.

i) Erakundeak « Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea » aitortpena izatea: puntu 1; eta proiektua genero-ikuspegitik planifikatu, garatu eta ebaluatzen bada: 4 puntu, gehienez.

j) Erakundeak berak finantzatzen duen jardueraren edo ekimenaren ehunekoa, edo beste erakunde batzuetatik lortzen duena: 5 puntu, gehienez.

Dirulaguntza jasotzeko, a) irizpidean gutxienez 10 puntu lortu behar dituzte eskaerak.

III. KAPITULUA

ESKU-HARTZE SOZIALEAN EKINTZA BOLUNTARIOA ETA PARTAIDETZA ASOZIATIBOA INDARTZEKO JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK

14. artikulua.– Xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuaren 4.3 artikulua araberak, dirulaguntza-lerro honetan honako jarduera hauek jaso ahal izango dute finantzaketa: esku-hartze sozialaren eremuan ekintza boluntarioa areagotzera eta partaidetza asoziatiboa garatzera bideratutakoak, eta, bereziki, esku-hartze soziala gauzatzen duten erakundeek entitate, sare edo, nagusiki, autonomia-eremuko federazioak eraikitzen eta hobetzen bideratutako jarduerak.

15. artikulua.– Aurrekontu-kreditua eta dirulaguntzen zenbatekoa eta muga.

1.– Ondorio horietarako, dirulaguntza-lerro honetako jarduerak finantzatzeko, 599.000 euroko kreditu bat aurreikusita dago Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko Aurrekontu Orokorren lege-proiektuan; zenbateko horretatik, 419.300 euro 2021eko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 179.700 euro, berriz, 2022ko konpromiso-kredituari.

2.– Dirulaguntza-lerro honetan, ezin izango da 35.000 eurotik gorako laguntzarik eman, betiere banaka kontuan hartuta.

3.– Ezin izango da emandako laguntzaren % 15 baino gehiago bideratu zeharkako kostuak ordaintzera. Era berean, ezin izango da emandako laguntzaren zenbatekoaren % 10 baino gehiago bidaia- eta dieta-gastuak ordaintzera.

16. artikulua.– Balioespen-irizpideak.

Dirulaguntza-lerro honetan aurkeztutako jarduerak balioesteko, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako irizpide amankomuneko koherentziari jarraikiz, eta han jasotako gainerako orientazioekin bat etorritik, honako alderdi hauek ebaluatuko dira:

a) Proposamenaren diseinuaren kalitate teknikoa, barne hartuta diseinuaren egokitasuna, bidegarritasuna eta ebaluagarritasuna: 25 puntu, gehienez.

b) Esku-hartze eta/edo garrantzi txikiko esparru batekoa izatea, nola jarduerak erantzuna eman nahi dion egoera, hala jardueraren helburuak, kontuan hartuta zuzeneko edo zeharkako hartzaile edo onuradun den pertsona kopurua: 15 puntu, gehienez.

c) Jarduera egitea, hainbat erakunderen edo hainbat erakundek osatzen duten sarearen edo federazioaren laguntzarekin: 10 puntu, gehienez.

d) Erakundeak onura publikoaren deklarazioa izatea: 2 puntu; eta interes sozialaren deklarazioa izatea: 3 puntu.

e) Jardueraren eremua edo eskala lurraldez gaindikoa izatea; halakotzat hartuko da jarduera benetan hainbat lurralde historikotan gauzatzea. Hala ere, lurralde historiko bateko baino gehiagoko erakundeek jardueretan halabeharrez parte hartzeak ez die lurraldez gaindikoko izaerarik ematen:

* Bi lurraldetan parte hartzea: 10 puntu.

* Hiru lurraldetan parte hartzea: 15 puntu.

f) Jardueran borondatezko ekintzaren eta elkarrekiko laguntzaren berezko balio erantsiak jasotzea: 5 puntu, gehienez.

g) Esku-hartzearen xede diren pertsonen jardueraren diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan parte hartzea: 5 puntu, gehienez.

h) Jarduera kokatuta egotea Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzukizun espezifikoak diren eta esku-hartze sozialaren eremurako egokitzat hartzen diren bi zeharkako eremutan edo gehiagotan (gizarteratzea, familia, immigrazioa, haurrak eta nerabeak, desgaitasuna eta mendekotasuna, adinekoak, dibertsitate eta askatasun afektibo sexuala), eta haietan zentzua izatea: 2 puntu, eremu gehigarri bakoitzeko, eta, gehienez, 10 puntu.

i) Erakundeak «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundeak» aitortzea: puntu 1; eta proiektua genero-ikuspegitik planifikatu, garatu eta ebaluatzen bada: 4 puntu, gehienez.

j) Erakundeak berak finantzatu duen jardueraren edo ekimenaren ehunekoa, edo beste erakunde batzuetatik lortzen duena: 5 puntu, gehienez.

Dirulaguntza jaso dezaketen bakarrak a) irizpidean 12,5 puntu gutxienez lortzen dituzten eskaerak dira.

IV. KAPITULUA

ESKU-HARTZE SOZIALARI BURUZKO JAKINTZA KUDEATZEKO JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK

17. artikulua.– Xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuaren 4.4 artikulua araberak, dirulaguntza-lerro honetan honako jarduerak hauek jaso ahal izango dute finantzaketa: esku-hartze sozialerako erabilgarria den jakintza produzitzera eta eskuratzera bideratutako jarduerak, hala nola prestakuntza-programak, ikerketa-proiektuak, argitalpenak egitea eta hedatzea eta dokumentazioarekin edo ekitaldi teknikoekin (ikastaroak eta mintegiak) lotutako jarduerak.

18. artikulua.– Aurrekontu-kreditua eta dirulaguntzen zenbatekoa eta muga.

1.– Ondorio horietarako, dirulaguntza-lerro honetako jarduerak finantzatzeko, 450.000 euroko kreditu bat aurreikusita dago Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko Aurrekontu Orokorren lege-proiektuan; zenbateko horretatik, 315.000 euro 2020ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 135.000 euro, berriz, 2021eko konpromiso-kredituari.

2.– Dirulaguntza-lerro honetan, ezin izango da 22.200 eurotik gorako laguntzarik eman, betiere banaka kontuan hartuta.

3.– Ezin izango da emandako laguntzaren % 10 baino zeharkako kostuak ordaintzera. Era berean, ezin izango da emandako laguntzaren zenbatekoaren % 10 baino gehiago bidaia- eta dieta-gastuak ordaintzera.

19. artikulua.– Balioespen-irizpideak.

Dirulaguntza-lerro honetan aurkeztutako jarduerak balioesteko, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako irizpide amankomunetik koherentziari jarraituz, eta han jasotako gainerako orientazioekin bat etorriz, honako alderdi hauek ebaluatuko dira:

a) Proposamenaren diseinuaren kalitate teknikoa, barne hartuta diseinuaren egokitasuna, bideragarritasuna eta ebaluagarritasuna, bai eta irakasleen, txostengileen edo ikertzaileen prestakuntza ere: 20 puntu, gehienez.

b) Aurkeztutako gaia edo proiektua berritzailea izatea: 20 puntu, gehienez.

c) Zenbat hartzaile izan dezakeen jarduerak: 5 puntu, gehienez.

d) Jardueran jorratutako gaiak zenbateraino laguntzen duen esku-hartze sozialaren eremua antolatzen eta, zehazki, zenbateraino laguntzen dien Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako eragile eta tresnei (kartera, ituna, dekretua, mapa): 10 puntu, gehienez.

e) Jardueraren eremua edo eskala lurraldez gaindikoa izatea; halakotzat hartuko da jarduera benetan hainbat lurralde historikotan gauzatzea. Hala ere, lurralde historiko bateko baino gehiagoko erakundeek jardueretan halabeharrez parte hartzeak ez die lurraldez gaindiko izaerarik ematen:

* Bi lurraldetan parte hartzea: 10 puntu.

* Hiru lurraldetan parte hartzea: 15 puntu.

f) Jarduera kokatuta egotea Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren erantzukizun espezifikoak diren eta esku-hartze sozialaren eremurako egokitzat hartzen diren zeharkako bi eremutan edo gehiagotan (gizarteratzea, familia, immigrazioa, haurrak eta nerabeak, desgaitasuna eta mendekotasuna, adinekoak, dibertsitate eta askatasun afektibo sexuala), eta haietan zentzua izatea: 2 puntu, eremu gehigarri bakoitzeko, eta, gehienez, 10 puntu.

g) Jarduera egitea, hainbat erakunderen edo hainbat erakunde osatzen duten sarearen edo federazioaren laguntzarekin: 5 puntu, gehienez.

h) Erakundeak onura publikoaren deklarazioa izatea: 2 puntu; eta interes sozialaren deklarazioa izatea: 3 puntu.

i) Erakundeak «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzako Erakundea» aitortpena izatea: puntu 1; eta proiektua genero-ikuspegitik planifikatu, garatu eta ebaluatzen bada: 4 puntu, gehienez.

j) Erakundeak berak finantzatzen duen jardueraren edo ekimenaren ehunekoa, edo beste erakunde batzuetatik lortzen duena: 5 puntu, gehienez.

Dirulaguntza jaso dezaketen bakarrak a) irizpidean 10 puntu gutxienez lortzen dituzten eskabi-deak dira.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuan ezarritakoaz gainera, agindu honek hizpide dituen dirulaguntzak honako xedapen hauek xedatutakoaren mende daude: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutakoa) VI. titulua eta VII. tituluaren III. kapitulua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako oinarrizko araudia, eta lege horren erregela-mendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa ezarri ahal izango diote erakunde interesdunek Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezarri

2021eko apirilaren 27a, asteartea

ahal izango dute zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua aipaturiko aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 13a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

I. ERANSKINA**EAE-KO ESKU-HARTZE SOZIALAREN EREMUAN HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERAK
SUSTATZEKO DIRULAGUNTZETARAKO ESKABIDE-EREDUA****ERAKUNDE ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK (TITULARRA)**

- Erakundearen izena
- IFZ
- Erakundearen forma juridikoa
- Helbidea
- Posta-kodea
- Herria
- Probintzia
- Tel.
- Mugikorra
- Faxe
- Helbide elektronikoa
- Web-orriaren helbidea

ESKATUTAKO LAGUNTZAREN XEDE DEN JARDUERAREN IZENA**ESKATUTAKO ZENBATEKOA****ERAKUNDE ESKATZAILEAREN LEGEZKO ORDEZKARITZA DUEN PERTSONAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK**

- Izen-abizenak
- NAN
- Erakundearen duen lanpostua, kargua, kondizioa edo ordezkari

ERAKUNDEAREN ERREFERENTZIAZKO PERTSONAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK, ESKABIDEARI BURUZKO ELKARRIZKETETARAKO

- Izen-abizenak
- Erakundearen duen lanpostua, kargua, kondizioa edo ordezkari
- Tel.
- Mugikorra
- Faxe
- Helbide elektronikoa

JAKINARAZPENA**Jakinarazpenerako abisua**

- Posta elektronikoa(k)
- Telefono mugikorra(k)

Jakinarazpenetarako aukeratutako hizkuntza

- Euskara
- Gaztelania

BANKU-DATUAK

- Bankua edo aurrezki-erakundea
- Agentzia
- KD (kontrol-digitua)
- Kontu-zenbakia
- Titularra

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

- Erakunde eskatzaileak ez du bestelako dirulaguntzarik ez eskatu, ez jaso ere, 2021ean, aurkeztutako jarduera finantzatzeko.
- Erakunde eskatzaileak bestelako dirulaguntzak eskatu edo jaso ditu 2021ean, aurkeztutako jarduera finantzatzeko (puntu hau zehaztu beharra dago, jarduerari buruzko datu ekonomikoetan).
- Erakunde eskatzaileak ez du dirulaguntzak ez diren bestelako finantzaketa-iturririk, 2021ean aurkeztutako proiektua finantzatzeko.
- Erakunde eskatzaileak baditu dirulaguntzak ez diren bestelako finantzaketa-iturriak, 2021ean aurkeztutako proiektua finantzatzeko (puntu hau zehaztu beharra dago, jarduerari buruzko datu ekonomikoetan).
- Adierazi erakunde eskatzailea itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean sartuta dagoen edo ez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako ezaugarri bereko bestelako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan.
BAI EZ
BAI erantzunez gero, prozedurak zein diren zehaztu beharko du
- Erakunde eskatzaileak ez du, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea galarazten dion zigor administratibo edo penalik, edo horretarako gaitasuna kentzen duen legezko debekurik, ez eta, bereziki, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoari jarraikiz.
- Ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 3. artikuluetan aurreikusten duen egoeretako batean.
- Erakunde eskatzaileak bermatu egingo du betetzen duela Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikuluko 5. apartatuan xedatua, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailearen 28ko 26/2015 Legearen bidez ezarrita baitago. Hau da, adingabeekin harremana izan ohi duten langile guztiek, bai kontratatuek bai boluntarioek, sexu-gaizkileen erregistro orokorraren ziurtagiri negatiboa izango dute.
- Organo emaleak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzearen aurka nago (baiezkoa emanez gero, eskatzaileak dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu). BAI EZ
- Egiazkoak dira eskabide honetan jasotako datuak nahiz erantsitako dokumentazioa.
- Erakunde eskatzaileak betetzen ditu indarrean dagoen araudian laguntza hauen onuradun izateko ezarritako eskakizunak, hala egiaztatzen duten dokumentuak baditu, eta konpromisoa hartzen du betekizun horiek betetzen segitzeko, dirulaguntza baliatzeari loturiko denboran.

HIRUGARRENEN ALTA / ALDAKETA BALIOZKOTZEKO BAIMENA:

Erakunde eskatzailearen legezko ordezkaria naizen aldetik, baimena eman diot deialdi hau kudeatzen duen organoari administrazio eskudunean beharrezko diren egiaztatze- eta ziurtatze-lanak egiteko baliabide telematikoen bidez, edo, hala badagokio, erabilgarri dauden bestelako baliabideen bidez.

DATU PERTSONALEN BABESA

Eskabidean ageri diren datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta honako izen hau duen tratamendu-jardueran sartuko: Gizarte-zerbitzuekin lotutako laguntzak eta dirulaguntzak.

- Arduraduna: Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza
- Helburua: Hirugarren sektoreko erakundeentzako laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzea.
- Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da interes sozialaren mesedetan edo tratamenduaren arduradunari emandako ahal publikoak baliatuz egindako misio bat betetzeko (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea).

- Hartzaileak: Arlo honetan eskudun diren administrazio publikoei eman ahalko zaizkie datu pertsonalak.
- Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubideak, baita informazio gehigarrian adierazten diren eskubideak ere.
- Informazio gehigarria: Web-orri honetan kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: <https://www.euskadi.eus/rgdaap/0050907>

Honako xedapen hauetan ezarritakoa betetzeko:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>)

Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa (<https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf>)

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK

- **Erakundearen helburuak, estatutuetan jasotakoak**
- **Kide anitzeko organoa edo zuzendaritza-batzordea osatzen duten pertsonak**
- **Erakundearen jardunerako lurralde-esparrua**
- **Erakundearen aurkezpen laburra** (erakundearen ibilbidea eta egungo egoera, honako hauei dagokienez: eginkizuna, kideak, hartzailleak, egitura, ondarea, egindako jardun nagusiak eta lortutako emaitzak)
- **Onura publikoko aitortpenaren data** (halakorik badu)
- **Interes sozialeko aitortpenaren data** (halakorik badu)
- **Auditoretzak**
- **Erakundearen egoitza edo egoitzak**, erakundearen lanerako bakarrik erabiltzen den tokia den, edo horretaz gain, etxebizitza partikularra ere baden zehaztuz
- **Erakundearen organigrama**
- **Erakundeoko langileak** Zehaztu zein den langileen sexua eta lanaldi osoko edo partzialeko kontratua duten.
- **Langile boluntarioak** Astean gutxienez 2 orduko dedikazioa dutenak, sexuaren arabera banakatuta.

ESKATUTAKO LAGUNTZAREN XEDE DEN JARDUERA

- **Jardueraren deskribapen laburtua**
- Jarduera kokatuta dagoen esku-hartze sozialeko **lehentasunezko esparrua edo esparrurik esanguratsuena**:
 - Gizarte Zerbitzuak
 - Gizarteratzea
 - Familia
 - Immigrazioa eta kulturartekotasuna
 - Haurrak eta nerabeak
 - Desgaitasuna eta mendekotasuna
 - idazkaritza
 - Dibertsitatea eta askatasun afektibo-sexuala
- Jarduera kokatuta dagoen **esku-hartze sozialeko bestelako esparruak**:
 - Gizarte Zerbitzuak
 - Gizarteratzea
 - Familia
 - Immigrazioa eta kulturartekotasuna
 - Haurrak eta nerabeak
 - Desgaitasuna eta mendekotasuna
 - idazkaritza
 - Dibertsitatea eta askatasun afektibo-sexuala
- **Jardueraren lurralde-eremua**
- **Arau-esparru eta esku-hartze planen batean edo gehiagotan jarduerak duen kokapenari eta zentzuari** buruzko azalpena (laguntza hauek iragartzeko aginduaren 1.2 artikuluan adierazita daudenak, hain zuzen ere), baita genero-ikuspegia txertatzeari buruzkoa ere.
- Dirulaguntza eskatu duen **erakundearen edo elkartearen estrategia, plan, programa edo proiektu zabalagoren baten esparruan jarduerak duen kokapenari eta zentzuari** buruzko azalpena, zabalagoa den estrategia, plan, programa edo proiektu hori deskribatuz, eta eskatutako dirulaguntzaren xede den jarduera bertan nola txerta daitekeen, edo zer ekarpen egiten duen adieraziz.
- Eskatutako dirulaguntzaren xede den jarduerarekin erantzun nahi zaion **egoeraren diagnostikoa edo ebaluazioa (baita deskribapena ere)**, eta jardueraren justifikazioa.

- **Aurreikusitako hartzaileak** (kuantifikazioa eta karakterizazioa, eta hala badagokio, identifikazioa).
- Eskatutako dirulaguntzaren xede den jardueraren **helburu orokorrak eta espezifikoak**.
- **Jardueraren aurreikusitako garapenaren deskribapena** (edukiak, faseak, kudeaketa-prozesuak, jardueren deskribapena).
- **Jardueren kronograma**
- **Jardueraren ebaluazioa**. Prozedura eta norainokoa. Zer emaitza espero diren (aurreikusiriko emaitzak, haien neurtzeko erabilitako adierazleak eta balioesteko erabiliko diren egiaztapen-iturriak)
- **Jarduera garatzeko behar diren giza baliabideak**. Pertsona bakoitzarentzat: kontratatuak edo boluntarioak ote diren; kategoria profesionala; prestakuntza eta kualifikazioa; asteroko dedikazio-denbora; hala badagokio, kontratua mugagabea edo aldi baterakoa den; kontratuaren iraupena; eta jarduerari lotutako eginkizunak.
- Jarduera gauzatzeko behar diren **baliabide materialak eta azpiegiturak**: deskribapena eta kuantifikazioa, jada eskura dituen ala ez adierazita. Kontuan izan behar da laguntza honen bitartez ezin izango direla diruz lagundu inbertsio-gastuak, adibidez: ezingo da eskuratu ondasunik, aurkeztu den jardueraren garapen-denbora baino bizitza erabilgarri handiagoa izango duenik.
- **Jardueraren lotura**. Jarduera hori bera laguntzok eskatzen dituzten beste entitate batzuekin batera gauzatu behar bada (271/2012 Dekretuaren 5.2 artikuluan xedatutako moduan): lotu zaizkion erakunde eskatzaileak; elkarteko kide bakoitzak bere egindako egikaritze-konpromisoak; elkarteko kide bakoitzak aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa.

2021eko apirilaren 27a, asteartea

JARDUERAREN DATU EKONOMIKOAK**JARDUERAKO DIRU-SARRERAK**

DIRU-SARRERAK	ZENBATEKOA
Erakunde eskatzailearen ekarpena	
Bestelako dirulaguntzak (barne direla eskatu baina ebatzi gabe daudenak)	
Bestelako diru-sarrerak	
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	

JARDUERAREN ZUZENENKO GASTUAK (zehaztu behar dira partida bakoitzaren gastuak)

GASTUAK	ZENBATEKOA
Langileak (nominak eta Gizarte Segurantzako gastuak)	
Profesional independenteen zerbitzuak	
Materialak	
Alokairuak eta errentamenduak	
Argitalpenak eta komunikazio-jarduerak	
Bidaiak eta dietak	
Bestelako zuzeneko gastuak (zehaztu jarraian)	
ZUZENENKO GASTUAK, GUZTIRA	
Zeharkako gastuak (zehaztu)	
ZEHARKAKO GASTUAK, GUZTIRA	
GASTUAK, GUZTIRA	

JARDUERA BERERAKO DIRU-SARRERAK 2020. URTEAN

ERAKUNDEA	EMANDAKOA
Erakunde eskatzailearen ekarpena	
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila	
Bestelako dirulaguntzak	
Bestelako diru-sarrerak (pertsona erabiltzaileak...)	
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA (2020)	

II-A ERANSKINA

EAE-KO ESKU-HARTZE SOZIALAREN ESPARRUAN DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERARI BURUZKO
MEMORIA

Espediente-zenbakia: _____

ERAKUNDEAREN ERREFERENTZIAZKO PERTSONAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK, JUSTIFIKAZIOARI
BURUZKO ELKARRIZKETETARAKO.

Izen-abizenak:
Erakundearen duen lanpostua, kargua, kondizioa edo ordezkaritza:
Tel.:
Mugikorra:
Fax-zenbakia:
Posta elektronikoa (e-maila):

1.- INFORMAZIO OROKORRA.

1.1.- Diruz lagundutako jardueraren izena: _____

1.2.- Jardueraren deskribapen laburtua (kopiatu eskabidean adierazitakoa).

1.3.- Jardueraren lurralde-eremua. Kokapen zehatza (proiektua EAeko zer eskualde, hiri, auzo edo udalerritan egin den).

1.4.- Proiektuaren iraupena.

Aurreikusitako hasiera-data:
Hasteko egun erreala:
Aurreko bi egunak berdinak ez badira, azaldu arrazoia:
Amaiera-data:
Gauzatze-aldi osoa:

2.- JARRAIPEN TEKNIKOA.

2021eko apirilaren 27a, asteartea

2.1.– Proiektuaren garapenaren eta lortutako emaitzen deskribapen laburra (azaldu proiektua aurreikusitakoaren arabera garatu den, haren garapenean izandako laguntzak eta aurkitutako zailtasunak zein diren, eta aurreikusitako jardueretik aldaketa posibleak, eskabidea egiten den unean, baita pertsona hartzekodunen kopurua ere, sexuaren, kolektiboaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera banakatuak).

--

2.2.– Proiektuaren helburuak lortzea (azaldu zenbaterainoko laguntza eskaini duen proiektuak aurreikusitako helburuak lortzeko).

--

2.3.– Emaitzen lorpena (deskribatu aurreikusitako emaitza eta hura neurtzeko erabilitako adierazleak, eta zehaztu zenbateraino lortu diren).

1. emaitza:
Adierazleak:
Iruzkina:

2. emaitza:
Adierazleak:
Iruzkina:

3. emaitza:
Adierazleak:
Iruzkina:

Zerrendarekin jarraitu, aurreikusitako hiru emaitza baino gehiago edukiz gero.

2.4.– Egindako jardueren zerrenda.

Aurreikusitako jarduera	Amaitua	Egin gabea
Aurreikusi gabeko jarduera		

2021eko apirilaren 27a, asteartea

2.5.– Jardueren kronograma eguneratzea (2.4 apartatuan deskribatutako jarduerak zerrendatu eta x batez markatu jarduera bakoitzaren egikaritze-hilabeteak).

Jarduera	Urt.	Ots.	Mar.	Api.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abu.	Ira.	Urr.	Aza.	Abe.

2.6.– Jarduera aurrera eramateko behar diren giza baliabideak: zenbat eta nolakoak (barne hartuta prestakuntza, kualifikazioa eta identifikazioa). Kontratutako pertsonen kasuan, adierazi behar da erakunde eskatzaileak zuzenean kontratatu dituen ala ez, eta kontratazioaren iraupena eta lanaldi mota. Pertsona boluntarioen kasuan, adierazi behar da astean zenbat ordu dedikatzen dioten jarduerari, eta boluntario-lan horren iraupena. Adierazi zer eginkizun betetzen duen pertsona kontratatu edo boluntario bakoitzak aurkeztu den jardueraren faseetan.

2.7.– Aurrekontuaren betearazpena: aurrekontua azkenean nola betearazi den, aldaketarik izan den dirulaguntzaren eskabidean adierazitakoarekiko, eta, halakorik izan bada, zer eragin izan duen proiektuaren betearazpenean.

3.- BALIOESPENA.

3.1.- Proiektuaren balioespen orokorra (egindako jardueren bidez lortutako emaitzak eta helburuak; aurrekontuaren betearazpena; esku-hartzearen hartzaila izan diren pertsonen partaidetza, etorkizuneko esku-hartzeetan hobetu beharreko alderdiak eta abar).

3.2.- Generoaren ikuspegia (zehaztu nola eutsi zaion generoaren ikuspegiari proiektuaren ziklo osoan, hau da, sistematikoki nola hartu diren aintzat emakumeen eta gizonen egoera, baldintza eta beharrizan ezberdinak, helburu eta jarduketa espezifikoek bidez, ezberdinkeriak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko).

3.3.- Beste gizarte-erakunde eta erakunde publiko batzuekin koordinatzea (zehaztu nola koordinatu den beste erakunde pribatu eta publiko batzuekin proiektua gauzatu den bitartean, eta eman geroko kolaborazio posibleen berri).

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA.

NAHITAEZKOAK.

II-A eranskina (Jarduerari buruzko memoria). Atal guztiak behar bezala beteta, eranskinean bertan adierazten diren jarraibideen arabera.

II-B eranskina (Jarduerari buruzko memoria ekonomikoa). Atal guztiak behar bezala beteta, eranskinean bertan adierazten diren jarraibideen arabera.

Dokumentazio publikoa, jarduerarekin lotuta dagoena:

- Prentsa-ebakinak.
- Diruz lagundutako jarduera garatzerakoan sortutako material bakoitzaren aleak, hizkuntza-bertsio bakoitzarenak; haietan, Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren babesa aipatu beharko da.
- Kasuak kasu, jardueraren funtsen kontura landutako, erreproduzitutako eta zabaldutako material didaktikoa.

Erakunde eskatzailea Gizarte Segurantzaren sisteman inskribatuta ez badago, erantzukizunpeko adierazpen bat, Gizarte Segurantzarekiko edo Gizarte Segurantzaren ordezkio sistemekiko betebeharrak egunean dituela adierazten duena.

HAUTAZKOA

Argazkiak.

Erakundeak egoki irizten dion bestelako dokumentu oro.

**II-B ERANSKINA
JARDUERARI BURUZKO MEMORIA EKONOMIKOA**ESP.-ZK.

ERAKUNDEA:

JARDUERA:

JARDUERAN GAUZATUTAKO AURREKONTUA**JARDUERAREN DIRU-SARRERAK**

DIRU-SARRERAK	ZENBATEKOA	EHUNEKOA
Erakunde onuradunaren ekarpena		% 0,00
Dirulaguntzak (zehaztu jarraian)	0,00 euro	% 0,00
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren dirulaguntza		% 0,00
		% 0,00
		% 0,00
		% 0,00
Bestelako diru-sarrerak (zehaztu jarraian)	0,00 euro	% 0,00
		% 0,00
		% 0,00
		% 0,00
		% 0,00
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	0,00 euro	% 100,00

JARDUERAREN GASTUAK

	Berdintasun , Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren dirulaguntza	Bestelako dirulaguntzak	Erakunde onuraduna	Bestelako diru- sarrerak	Guztira
JARDUERAREN ZUZENEKO GASTUAK					
Langileak (nominak eta Gizarte Segurantzako gastuak)					0,00 euro
Profesional independenteen zerbitzuak					0,00 euro
Materialak					0,00 euro
Alokairuak eta errentamenduak					0,00 euro
Argitalpenak eta komunikazio-ekintzak:					0,00 euro
Bidaiak eta dietak					0,00 euro
Bestelako zuzeneko gastuak (zehaztu errenkadak txertatuta)	0,00 euro	0,00 euro	0,00 euro	0,00 euro	0,00 euro
					0,00 euro
					0,00 euro
ZUZENEKO GASTUAK, GUZTIRA	0,00 euro	0,00 euro	0,00 euro	0,00 euro	0,00 euro
ZEHARKAKO GASTUAK (zehaztu)					
					0,00 euro
					0,00 euro
ZEHARKAKO GASTUAK, GUZTIRA	0,00 euro	0,00 euro	0,00 euro	0,00 euro	0,00 euro
GASTUAK, GUZTIRA	0,00 euro	0,00 euro	0,00 euro	0,00 euro	0,00 euro
EHUNEKOAK	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00

Eranskin honek dirulaguntza-lerro guztietarako balio du, eta telematikoki aurkeztu behar da dagokion espedientean, www.euskadi.eus web-orriaren apartatu honetan: «Egoitza elektronikoa / Nirekarpeta»

Eranskin hau II-A eranskinarekin batera (Jarduerari buruzko memoria) aurkeztu behar da.

Baldin eta jarduera bera garatu badute nortasun juridiko propioa duen elkarte bat osatzen ez duten zenbait erakundek, erakunde horietako bakoitzak jardueraren guztizko aurrekontu berdina aurkeztu beharko du; gainera, «Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren dirulaguntza» gisa adierazi beharko da justifikazioa aurkezten duen erakundeari emandako dirulaguntza, eta, «Bestelako dirulaguntzak» atalean adierazi beharko dira diruz lagundutako jarduera egiten parte hartzen duten gainerako erakundeei Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak emandakoak. Justifikazio-kontuan, justifikazioa aurkezten duen erakundeari emandako laguntza justifikatzen duten agiriak baino ez dira bilduko.

2021eko apirilaren 27a, asteartea

JUSTIFIKAZIO KONTUA

(Erantzukizunpeko adierazpena, non bildu behar baitira proiektua gauzatzeko izandako gastu guztien zerrenda, jasotako laguntzari egozten zaizkion gastuak zehaztuta, eta gastu horiek egiaztatze dokumentuak).

JUSTIFIKATUTAKO ZUZENAKO GASTUAK

ZK.	DOK. MOTA	IDENTIFIKAZIOA	KONTZEPTUA	IGORLEA	DATA	JARDUERAREN ZENBATEKOA	DIRULAGUNTZARI EGOTZITAKO ZENBATEKOA	EGOTZITAKO %
Langileak (erakundearen kargurako nominak eta Gizarte Segurantzako gastuak).						0,00 euro	0,00 euro	% 0,00
1								% 0,00
2								% 0,00
Professional independenteen zerbitzuak						0,00 euro	0,00 euro	% 0,00
...								% 0,00
								% 0,00
Materialak						0,00 euro	0,00 euro	% 0,00
								% 0,00
								% 0,00
Alokairuak eta errentamenduak						0,00 euro	0,00 euro	% 0,00
								% 0,00
								% 0,00
Argitalpenak eta komunikazio-ekintzak:						0,00 euro	0,00 euro	% 0,00
								% 0,00
								% 0,00
Bidaiak eta dietak						0,00 euro	0,00 euro	% 0,00
								% 0,00
								% 0,00
Zuzeneko bestelako gastuak (zehaztu)						0,00 euro	0,00 euro	% 0,00
								% 0,00
								% 0,00
JUSTIFIKATUTAKO ZUZENAKO GASTUAK, GUZTIRA						0,00 euro	0,00 euro	% 0,00

JUSTIFIKATUTAKO ZEHARKAKO GASTUAK

ZK.	DOK. MOTA	IDENTIFIKAZIOA	KONTZEPTUA	IGORLEA	DATA	JARDUERAREN ZENBATEKOA	DIRULAGUNTZARI EGOTZITAKO ZENBATEKOA	EGOTZITAKO %
1								% 0,00
2								% 0,00
...								% 0,00
JUSTIFIKATUTAKO ZEHARKAKO GASTUAK, GUZTIRA						0,00 euro	0,00 euro	% 0,00
JUSTIFIKATUTAKO GASTUAK, GUZTIRA							0,00 euro	% 0,00
EMANDAKO LAGUNTZA							0,00 euro	% 100,00